

UZTARRIA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



TICKET BAI

DUDAK ERE BAI

INNOVA
AZPEITIA

POSTE-LINIA



José Artetxe 5 • 943025955

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak



Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 • AZKOITIA • ☎ 943-85 21 10 • www.biyona.net

UZTARRIA



UZTARRIA 242

2021EKO URRIA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IÑAKI MARTINEZ ALBIZU



UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.



ERAZTEKIN ATERABERRI
ARROZKO

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Iritzia Anartz Izagirre, <i>Asimilazioaz.</i> | 30 | Plazan bazan |
| 6 | Hantxe bertan Iñigo Albizuri, Islandian izan den azpeitiarra. | 33 | Iritzia Oier Etxeberria, <i>Zerbitzaria behar da.</i> |
| 8 | Nire leihotik Haizea Salegi, <i>Jarraitu dantzan.</i> | 34 | Atzera begira Azpeitiarrak Oktoberfesten. |
| 10 | Iritzia Irati Aranguren, <i>Dantzatu bizitza!</i> ; Hiromi Yoshida, <i>'Ezagutzea' eta 'gozatzea'.</i> | 38 | Iritzia Miren Segurola, <i>Zapata berriak.</i> |
| 12 | Elkarrizketa Arkaitz Coca emakume futbolariaren ordezkaria. | 40 | Iritzi grafikoa Itziar Aranguren. |
| 18 | Erreportajea Ticket Bai sistema. | 42 | Klik! Iban Izagirre ilustratzailea. |
| 25 | Lehiaketa | 46 | Iritzia Janire Alkorta, <i>CHaO C8H10N4O2</i> ; Ignacio Arakistain, <i>Topaguneak.</i> |
| 26 | Erretratua Iraia Bereziartua biolin jotzailea. | | |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Anartz Izagirre
Ihintza Elustondo

Diselnu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Haizea Salegi
Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Oier Etxeberria
Miren Segurola
Janire Alkorta

Ignacio Arakistain
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2500 ale



PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-50 94 47 **AZKOITIA**
Urtiarle 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 5808
Faxa.: 943 15 03 62



CITROËN

Alertza Autoak
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
alertza@alertzaautoak.com



EuroTaller EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrokoak

Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikazargi@ikaik@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 **AZPEITIA**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 **AZPEITIA** - Urrut.: 943 81 57 81

Iuba
ahelkularitza

Analitikaritzak
libros
lehenak
konposak

Gestioi lanak
Finan administratibak
Gestio inmobiliariak

Tfn: 943 157 329 Faxa: 943 157 379
Eguren saltea: 43-41 Iuba.ahelkularitza.es



Ekain
ALBARTARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51

adi ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talia 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
arrediseinu@gmail.com
Matricula urte osan zabalik

IRENE ALTUNA
KOMAGENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ikomagenda.com

AZKOITIA



ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!



Asimilazioaz



ANARTZ IZAGIRRE

Bazkalosteko kafea kontrako eztarritik joan zitzaidan duela hilabete batzuk eskualdeko taberna batean Euskal Autonomia Erkidegoko mapa ikusi nuenean. Ordura arte ez nuen halakorik ikusi administrazio publikotik edo kontu ofizialetatik aparte, eta harridura eragin zidan taberna atontzeko zerbait jarri behar eta mapa hori aukeratu izanak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa ageri ziren bertan, eta Arabaren erdian ohiko “uhartetxoa” ageri zen, Trebiñuko konderria, beste kolore batez margotuta.

Oharkabean selektibitateko garaiak etorri zitzaizkidan gogora. Izan ere, Ikastolan izan nuen Geografiako irakasleak Euskal Herri osoa hartzen zuen kontuan klaseak ematerakoan, nahiz eta behin eta berriro jakinarazten zigun ebaluazioko azterketetan eta selektibitatean ez genuela Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko informaziorik jarri beharko. Egia esanda, orduan jabetu nintzen EAEren nolakotasunaz, baita Espainiako autonomia erkidegoen mugak non hasi eta non amaitzen ziren ere.

Ordutik behin baino gehiagotan entzun ditut telebistako hainbat kazetari “*las tres capitales vascas*” imintziorik egin gabe esaten, lasai ederrean, eta nire baitan pentsatzen nuen: “Ez dadila iruindarrik edo baionarrik albiste horiek entzuten egon, arren”. Ez dakit noiz hasi ginen EAEko herritarrok euskalduntasunaren edo euskal herritartasunaren lizentziak gainontzekoei banatzen, baina egun geure arteko mugak oso markatuta daudela eta horien arteko arrakala gero eta sakonagoa dela iruditzen zait –probintzialismoaren gaia alde batera utzita–. Batzuek oso gertu sentitzen dute Espainiako edozein txoko, eta oso urrun, esaterako, Angelu; EAEko herritar gehienok jakingo dugu nor den Ayuso, baina ez Txibite.

Dena den, Suediako unibertsitate batek aurten eginiko ikerketa baten arabera, European EAEko herritarrek dute estatuarekiko atxikimendurik txikiena, baita beren “erregioarekiko” ere. Aurrerago *Berria* egunkariak nabarmendu zuen autonomia erkidegoaz galdetu zitzaizela herritarrei erregioaz ari zirenean, eta ez Euskal Herriaz. Horrek erakusten du zer den EAE bertako herritarrentzat. Hala eta guztiz, eta beharbada horretan zerikusia izango du aurten hain ohiko bilakatu den itxiera perimetralak, esango nuke oso asimilatuta dugula lurralde antolaketa modu hori.

Oroitzen naiz Irlandan nengonean ezagutu nuen barakaldar batek neu ere “*del norte*” al nintzen galdetu zidala. Ez dizuet ukatuko “*¿Del norte de qué?*” erantzuteko tentaziorik izan ez nuenik, baina baietz esan nion, bakeagatik edo. Izan ere, neu ere erori izan naiz autonomismo tranpati horretan, eta puntu kardinalez banatutako Espainia horren parte sentiarazi izan naute askotan. Banekien barakaldar hura ez zela Ipar Euskal Herriaz ari, ezta Ipar poloaz ere, banekien non kokatzen zuen “guztia” erdigunea; milaka modu izan zitzakeen barakaldar batek azpeitiar bati euskal herritarra al zen galdetzeko, baina horixe aukeratu zuen. Funtsean, iparra non kokatzen duzun da gakoa, eta guk geurea aspaldi galdu genuela iruditzen zait. ■■■

**PUNTO KARDINALEZ
BANATUTAKO ESPAINIA
HORREN PARTE
SENTIARAZI IZAN
NAUTE ASKOTAN**

Iñigo Albizuri: "Paisaia eta islandiarren bizimodua dira gehien gustatu zaizkidan gauzak"

TESTUA: JULENE FRANTZESENA

ARGAZKIA: IÑIGO ALBIZURI

Iñigo Albizuri (Azpeitia, 1994) Islandiara joan zen martxoaren erdialdean. Futbola tarteko joan zen hara, Gaztela eta Leongo (Espainia) Atletico Bembibre taldea utzita, baina hilabete batzuk pasatuta, hara itzuli da berriro. Leiknir Faskrudsfjörður taldean egin du bukatu berri den denboraldia atzelari azpeitiarrak, baina hilabeteotan izan du Islandiako txokoak ezagutzeko aukera.

Nolatan erabaki zenuen Bembibre utzi eta Islandiara joatea?

Islandiara joatea erabaki nuen, alde batetik, eskaini zizkidaten baldintzak oso onak zirelako. Bestetik, gurasoekin hitz egin nuen eta ikusten genuen Islandia oso herrialde interesgarria zela; polita izateaz gain, esperientzia aberasgarria bizi nezakeela. Faktore horiek kontuan hartuta erabaki nuen hara joatea.

Alderik ba al da Islandiako eta Espainiako futbolaren artean?

Bai. Islandiara iritsi, pare bat asteko denboraldi-aurrea egin eta apirilean ekin genion denboraldiari. Egia esan, ondo joan da denboraldia. Saiklapenari begiratuz gero, berriz, erdi aldeko postuetan ibili gara. Espainiako futbola askoz ere teknikoagoa eta taktikoagoa da; Islandian, berriz, gaitasun fisikoari garrantzi handiagoa ematen diote.

Islandiara iristean, zerekin egin zenuen topo?

Leku eder asko dago Islandian: sumendiak, ur jauziak, ur termalak... Kultura aldetik, berriz, bada atentzioa eman didan gauza bat: bizi maila oso ona izanagatik, oso gazterik hasten dira han lanean. 13-14 urteko gaztetxoak supermerkatuetan edo beste hainbat lekutan ikusten dira lanean; oso ohikoa da hori. Bestalde, hizkuntza aipatuko nuke: islandierak ez du

zerikusirik ez ingelesarekin, ez ezerekin, eta oso zaila egin zait ulertzea. Gastronomia aldetik, berriz, ez dut alde handirik sumatu.

Asko kostatu al zitzaizun Islandiara egokitzea?

Lehen bi asteetan entrenamenduetako erritmora egokitzea kostatu egin zitzaidan, baita beren jokora egitea ere. Dena den, aste batzuk pasatuta, egokitu nintzen, eta harrezkero, oso gustura ibili naiz.

Oro har, nolakoak dira islandiarrak?

Hasiera batean, itxi samarrak dira, baina denborarekin irekitzen dira. Zerbait azpimarratzekotan, oso eskuzabalak direla esango nuke; edozertan laguntzeko prest egoten dira.

Izan al duzu bazterrak ezagutzeko aukerarik?

Bai. Islandiara iritsi eta hiru bat astera erosioa izan zuen sumendi bat bisitatzeko aukera izan nuen; esperientzia oso ederra izan zen. Beste hainbat leku eta paisaia ezagutzeko parada ere izan dut, baina bat nabarmentzekotan, sumendia aipatuko nuke.

Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?

Gehien gustatu zaidana paisaia izan da, eta horrez gain, islandiarrak duten bizimodua. Izan ere, bizi maila oso ona dute Europako beste hainbat herrialdetan dutenarekin alderatuta, eta islandiarrak oso langileak dira. Txarrena, zalantzarik gabe, eguraldia da. Uda izanagatik, edozein egunetan elurra egin dezake, hotza egiten du, haize bolada handiak izaten dira...

Urteak daramatzazu Euskal Herriatik kanpo. Ez al duzu etxearen falta sumatzen?

Bederatzi urte daramatzat etxetik kanpo, eta asko sumatzen dut familiaren, gurasoen eta lagunaren falta. Urtez urte gero eta gehiago, gainera. 18 urterekin joan nintzen Leonera [Espainia] ikastera, eta harrezkero, Azpeititik kanpo bizi izan naiz. ■



Jarraitu dantzan



ARGAZKIA ETA TESTUA: HAIZEA SALEGI

Egunero, esnatzean, ekiloreak eguzkirantz mugitzen dira, eguzkiaren arrastoa jarraituz ekialdetik mendebaldera. Gaua iristean, ibilbide bera egiten dute alderantzizko norazkoan, hurrengo goizean eguzkiaren irteeraren zain geratzeko. Bada egun bat, ordea, beren eguneroko ibilbide hori egiteari uzten diotena. Helduarora iristean, eguzkiari jarraituz dantza egiteari uzten diote. Ez dira gehiago mugituko, hil arte ekialderantz begira lokartzen dira.

Gizakiok ere izan gara zerbaiten jarraitzaile inoiz, eta utzi ere egin izan dugu noizbait. Aurkitzen dugu ordezeko bilakatzen den beste edozer, eta horren jarraitzaile bilakatzen gara.

Iritsiko zaigu eguna, ordea, hori ere baztertu eta ahaztuko duguna.

Gure ibilbidean zehar, batzuetan, jarraitzaile izan garen uneak gogora ekarriz eta horiekin dantza eginez lokartzen gara. Goxo-goxo lokartzen gara. ■■■







Dantzatu bizitza!

Txlup! Salto bat lehenik!
Txlup! Bigarrena gero!
Txlup, txlup, txlup!
Putzutik putzura, saltoz salto ezagutu ditugu gure jauzien indarrak eta luzerak. Ederra da putzuetan matxinsaltoek bezala jolastea, zerrien gisan ere bai tarteka. Izango da norbaiten esanak fin-fin jarraituz putzura jauzi egin ez zuenik, sekula bere urratsen luzerarekin jolasten ausartu ez denik. Eta bagara zentzua dugunetik gure saltoen neurri eta doinuak bizi garenok ere.

Haurren marrazkietan ohikoak dira pertsona esku handiak, behatz luzeak, aho berezikoak edota hanka luzeak. Eskuak asko erabiltzen dituen haurrak, bere eskuak maite dituen haurrak, esku bereziak marraztuko ditu. Aho ederra margotuko du honengatik edo

hargatik ahoa gogoko duenak, ezpainak pintatzea gogoko duelako zein jatea gustuko duelako. Egun 6 urte banitu, ziur naiz hanka bereziak egingo nizkiekeela neure buruari.

Hamaika barre eta negar sortu dizkidate nire gorputz adar horiek urte hauetan guztietan. Hogeita bederatzi hanka zenbakia edo omen nuen lehendabiziko dantzetako zapatilak erostera joan ginenean. Harrez geroztik, dantzarako hamaika neurri, kolore eta formatako oinetakoak

sartu dira gure etxean. Hemen, gure herrian, Azpeitian, egin nituen nire lehen saltoak, bai ikasle bezala, bai irakasle bezala. Herri dantzazalea da gurea, lehen ere dantzari asko ziren, eta oraindik ere badira. Nik ere bertan igaro ditut hamaika ordu ispiluari begira, eta ikasgai handia izan da.

Ikasgai handia diot, bai, ikasi baitut errespetuan, kideen arteko berdintasunean, elkar entzutean, hau da, egunerokotasuneko balioetan dagoela zoriontasunaren giltza. Ikasi dut ispiluarekin buruz buruko partidak jokatzeko ere, bata bestea inoiz menperatu gabe. Ni baino ikasle helduagoekin elkarbizitzeko ikasi dut. Zu, ni baino zaharragoa zinen lehendabiziko ikasle hori, beldurak gainditzeko bide izan zinen, eta eskerrik asko.

**DANTZAREN BIDEZ
GURE KULTURA
MANTENTZEKO LANEAN
DIHARDUZUENOI,
ESKERRIK ASKO**

HAUXE BAI JENEROA!



–Aurreku hura dotore ikasi zenuen, baina gogora ezazu zure emanaldi hartako bideoaren zain nagoela!–.

Dantza ikaslea naiz oraindik ere, eta hamar urte bete ditut urri honetan irakasle lanean. Ohorea izan dut Urola ibaiaren mareekin batera Azkoitian, Azpeitian, Errezilen, Aizarnan, Aizarnazabalen, Oikian, Getarian eta Zarautzen hankak taupaka jartzeko. Olatuen alderantz erraza izan da bidea; marearen kontrari, aldiz, gogorra. Olatuei aurre eginez, estropezuka, ur trago bat egin eta altxa, beste tragoa eta altxa! Baina beti aurrera egiteko gogoia izan dut, ikasleek eginiko lanak eta haren emaitzak barrua betetzen baitute.

Eguzkiari emaniko azken hamar bira hauetan

ezagututako izarrak asko dira, gehiegi hemen aipatzeko. Baina, jakin, hankagorriok, zuek zaretela egun nire eguneroko irribarrearen arrazoi nagusi! Nerabezaroko adrenalinaz nire barrua astintzen duzuenok, mundialak zarete! Basoerdiei salto egin ordez, Radlerrari kolpe egiten diezuenok, eutsi horri! Sorginkeriaz bazterrak ziprztintzen dituzuenok, jarraitu magia egiten! Eta noski, dantzaren bidez gure kultura eta herri nortasuna mantentzeko lanean diharduzuenoi, eskerrik asko. Asko zarete herriei eta auzoei bizirik eusteko lanean ari zaretenak, jarraitu horrela! Dantzatzen duen herria ez baita inoiz hilko!

Eskerrik asko eta dantzatu bizitza! ■■■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

'Ezagutzea' eta 'gozatzea'

Japoniako euskara ikasteko klaseetan euskal kulturaren zenbait arlo ere azaltzen dizkiet ikasleei, eta haiei deigarrien eta harrigarrien egiten zaien diziplina, dudarik gabe, bertsolaritza da. Bertsopak egiteko zer-nolako arauak bete behar diren, nola aukeratu behar den doinu eta abar azaldu eta bertso batzuk ematen dizkiet irakurtzeko, japonierazko itzulpenarekin. Miragarria iruditzen zaie ikasleei bertsolariek hitz ugari eta doinu asko buruan dituztela eta arau guztiak betetz bertsopak egitea. Batez ere, bat-batekotasunarekin gelditzen dira txundituta. Miragarria egiten zaie halako segundo gutxitan arauak betetz mundu bat bertsotan osatzea.

Horrela, bertsolaritzaren ezaugarriak eta obra batzuk ezagutzen dituzte ikasleek, baina benetako gozamenik gabe. Itzulpenek laguntzen diete bertsopak ulertzen, baina itzulpenetan errimak, hitz jokoak graziak eta abar galdu egiten dira askotan. Onena, noski, bertsopak euskara hutsean ulertzea eta gozatzea da. Gainera, euskaraz ondo jakiteaz gain, Euskal Herriko berri (aspaldiko kontuak nahiz gaur egungoak) etengabe izatea beharrezkoa da bertsokin gozatzeko. Ni ere ez naiz horretaraino iristen! ■■■

FAST FOOD-AREN INBASIO IRAUNKORRA
AURKITZEN DUZUNEOA



Arkaitz Coca: "Kalitatezkoa, konpromisozkoa eta profesionala izan behar du jokalaria eta agente binomioak"

ARKAITZ COCA EMAKUME FUTBOLARIEN ORDEZKARIA

Unik Sports Management agentzia sortu zuen duela urtebete azpeitiarrak, eta gaur egun, 42 emakume futbolariaren ordezkaria da. Emakumeen futboleko oraindik badela zer egin adierazi eta futbol industriako kide guztiek norabide berean lan egiteko beharraz oharatazi du.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Arkaitz Coca (Azpeitia, 1980) Tarragona eta Bartzelona artean bizi da azken urteetan, emakume futbolariaren agentea baita ogibidez. Puntapuntako futbolariaren ordezkaria da, eta oraintsu Unik Sports Management izeneko futbolariaren agentzia sortu du

Carlota Planas areto futboleko jokalaria ohiarekin batera. Gainera, munduko agente garrantzitsuenek osatzen duten TFF elkartearen sartu berri da. Emakumeen futbola gorenera eramanez nahi du bere jardunarekin.

Noiz eta nolatan hasi zinen futbol agentzien munduan lanean?

2008an hasi nintzen gaiari bueltaka. Futbola ikaragarri gertatu izan zait betidanik, baina banekien ez nuela futbol jokalaria izateko dohainik. Futbolaren beste aldeak ere asko erakartzen ninduen, ordea; estatistikek, fitxaketek, kudeaketak... 2010ean, lagun batekin batera, egoitza Londresen zuen ordezkari agentzia bat sortu nuen; izan ere, emakumeen futbola saso hartan zuen egitura tarteko, ezinezkoa zen Espainian lan egitea eta dirua irabaztea.

Aurretik zertan egiten zenuen lan?

Errezilgo Domusa enpresan aritzen nintzen. Futbolaren munduarekin ez zuen zerikusirik lan hark, baina pertsona bezala hezten eta harremanetan trebatzen lagundu zidan; denbora asko izaten nuen gauzak pentsatzeko.

Nola trebatu zinen agentzien munduan?


Sekula ez naiz ikasle ona izan, ez ninduen ezerk erakartzen. Hori dela eta, derrigorrezko ikasketak egin nituen. Dena den, denborarekin, ikasteko beharra sentitu nuen, eta halaxe hasi nintzen. Gaur egun, Kirol Zuzenbideko eta Kirol Kudeaketako masterrak ditut. Gainera, gaztelania ez ezik, beste hainbat hizkuntza ikasi behar izan ditut lanbidea tarteko: italiara nahiz portugesa. Ingelesa hobetzen saiatzen ere ari naiz.

Futbola betidanik atsegin izan duzula esan duzu.

Emakumeen futbola ere bai?

Futbolaren jarraitzaile sutsua betidanik izan naiz, ikaragarri gustatzen zait. Munduko edozein tokitako futbol partidak ikusten nituen.

Emakumeen futbola, baina, ez nuen askorik ezagutzen. Egun batean, zera galdetu nion neure buruari: "Zer egin ote zuen Kristina





Arkaitz Coca hainbat futbol jokalarirekin.

Fernandezek?”. Ikaskide izan nuen Fernandez, eta Azpeitiko futbolari onenetariko zen, baina ez zen iritsi elitera. Emakume futbolariak hain aukera gutxi zergatik zituzten aztertzen hasi nintzen, eta orduan ikusi nuen etorkizunera begira negozioa eratzeko aukera zegoela arlo horretan. Izan ere, behar bat bazen emakumeen futboleant. Urtez urte ikaragarri hazten ari den industria da emakumeen futboleant, eta uste dut une egokian hasi nintzela urratsak egiten.

Duela urtebete Unik Sports Management agentzia sortu zenuen. Zer helbururekin?

Sektorean hamar urteko esperientzia nuen, eta beste pauso bat emateko ordua zen. Lehen neukan agentziak Carlota Planasekin kolaboratzen zuen –beste agentzia batean egiten zuen lan hark–; zuzendari exekutiboa zen Planas, eta emakumeen futboleko babesletzen eta publizitatearen kudeaketaz arduratzen zen. Hainbat hizketaldi izan genituen, eta Unik Sports Management sortzea erabaki genuen; izan ere, ikusten genuen emakume futbolariak eskatzen dituzten zerbitzu guztiak eskainiko zituen agentzia bat sortzeko beharra zegoela. Negozio plana egin genuen, eta lehen urtea eginda, harro gaude eta zoriontsu gara, helburuak gainditu egin baititugu.

Gaur egun, zer egoeratan dago emakumeen futbolaren sektorea?

Hazten ari den sektorea da. Dena den, hainbat balio oso errotuta ditu emakumeen futbolak, eta hainbat agente berrik oraindik ez dituzte ulertzen horiek. Negozio aldetik, klubentzat oso erraza da dirua irabaztea; izan ere, gizonen futboleant baino askoz ere txikiagoa da inbertsioa. Egia da klubentzat parekoak direla egiten duten inbertsioa eta horren truke jasotzen duten irabazia, baina gizarte mailan duen eragina izugarria da. Eliteko klubek ikusi dute futbolaren industrian beti izan daitezkeela irabaziak. Dena den, Bartzelonako emakumeen saila da munduan ehuneko ehun errentagarria den bakarra. Gainera, babesleek abantaila fiskal handiak dituzte Universo Mujer gisako proiektuetan.

Jokalari zailduekin nahiz hasiberriekin egiten duzu lan. Zer azpimarratuko zenuke?

Gero eta jokalarik gehiagok egiten dute bat gure kudeaketarekin eta ikuskerarekin, eta oso harro gaude gaur egun ordezkatzan ditugun 42 futbolariarekin. Jokalarik horietako batzuek Txapeldunen Liga; Espainiako, Italiako nahiz Mexikoko ligak; Erreginaren Kopa; Espainiako



Esther Gonzalez Real Madrileko jokalaria eta Arkaitz Coca.

**"URTEZ URTE IKARAGARRI HAZTEN
ARI DEN INDUSTRIA DA EMAKUMEEN
FUTBOLARENA"**

**"BARTZELONAKO EMAKUMEEN
SAILA DA MUNDUAN EHUNEKO EHUN
ERRENTAGARRIA DEN BAKARRA"**

**"FUTBOLARIEN KIROL IBILBIDEKO
KONFIANTZAZKO PERTSONA DA
ORDEZKARIA"**

Superkopa; Italiako Kopa; Frantziakoa... irabazi dituzte azken urtebetean. Gainera, jokalaria gehienak beren sorterriko selekzioarekin aritzen dira, eta Bartzelonan, Real Madrilen, Athletic Madrilen, Juventus, Milanen, Roman, Inter de Milanen, Napolesen, OL eta lehen mailako beste hainbat nazioarteko taldetan jokatzen dute.

Euskal jokalaririk ordezkatu al duzu sekula?

Bai, noski. Realeko eta Athleticeko hainbat jokalarirekin egin dut lan, baita Betisen, Valentzian nahiz Deportivon jokatu duten euskal futbolari batzuekin ere. Horrez gain, Eibarrekin eta Alavesekin ere egiten dugu lana. Talentu handia dago Euskal Herrian, eta uste dut gakoa zera izan dela: euskal gizarteak aspalditik sinesten du aukera berdintasunean, eta hori nabaritu egin da futboleant. Athleticeko eta Realak horri esker lortu dituzte hainbat titulu, askoz ere aurrekontu handiagoa duten klub handien aurka jokatuta.

Zein da futbolarien ordezkari baten lana?

Futbolarien kirol ibilbideko konfiantzazko pertsona da ordezkaria. Futbolariarekin harreman oso estua izaten dugu, baina horretan eragina du norbere izaerak eta bi aldeen arteko *feelingak*. Ez dugu soilik kirolari horien ibilbidea kudeatzen, haien emozioak ere kudeatzen ditugu, une onetan nahiz txarretan.

Jokalariei zer eskaintzen diezue?

Dena. Kirol kontratuen negoziazioa, kirol aholkularitza, publizitate kontratuak, babesleak, egunerokoaren kudeaketa, lege aholkularitza, aholkularitza fiskala, inbertsioak, erosketa handiak, oporrak, familien laguntza eta arreta... Dena esan dut, eta halaxe da. Lehen mailako jokalaria dira, eta horrek asko exijitzen du; horregatik, kalitatezkoa, konpromisozkoa eta profesionala izan behar du jokalaria eta agente binomioak.

Zer da zure lanari lotuta gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana da ekintza bakoitzak berehalako erantzuna duela, eta horrek menpekotasuna sortzen du. Badakizu ondo eginez gero berehala jakingo duzula emaitza, baina baita deskuidatzen zarenean ere. Emakumeen futbolagatik gauza asko sakrifikatu ditut bizitzan; izan ere, Azpeitian bizi nuen egoera erosotik atera egin nintzen, kooperatibista nintzen enpresatik alde egin nuen, lagunak galdu ditut, familia ere bai... Hori guztia galdu dut dudan denbora guztia futbolari eskaintzeko eta emakumeen futbolaren munduan arrastoa



Arkaitz Coca, Misa Rodriguez Real Madrileko jokalaria eta Carlota Planas.

uzteko. Baina, egia esan, ez naiz ezerekin damutzen. Beraz, egiten dudana lanak ez du gustatzen ez zaidan alderik; miretsi egiten dut. **Emakumeen futboleko gauzak asko aldatzen al dira herrialdeetik herrialdera?**

Bai, bai, ikaragarri, gizonen futboleko bezalaxe. Ez da gauza bera New Yorken, Erroman edo Sevillan [Espainia] jokatzeko. Gainera, klubaren esklusibotasun maila, soldadak, bizi maila eta fiskalitatea aldatu egiten dira toki batetik bestera.

Duela bi urte inguru, Espainiako Emakumeen Lehen Mailako jokalariek jakinarazi zuten beren lan baldintzak hobetzen ez baziren grebara joko zutela. Zerbait aldatu al da ordutik hona?

Zorritzarrez, Espainian egin diren aldaketa positiboak oraindik ez dira nahikoa. Gainera, hainbat pauso eman dira atzera. Arazo larria dugu gaur egungo Espainiako emakumeen futbolaren kudeatzaileekin. Modan dago genero berdintasunaren eta feminismoaren alde egitea, baina benetako ordua iristen denean, aurrerapausoak gutxi izaten dira, batere ez direla egiten ez esatearren.

Zein izan dira aldaketa positiboak?

Orain arte existitzen ez zen hitzarmen kolektibo bat egin da, eta hori garrantzitsua da. Txarrena

da hitzarmenaren barruan futbolarietako zuzenaren eragiten dieten hainbat klausula txertatu dituztela. Protagonistak futbolariak dira, eta asko ez dira horrekin jabetzen oraindik ere.

Triste da: klausula horiek futbolariaren sindikatuek defendatu dituzte, baina sindikatu horiek emakume futbolariaren interesak defendatu behar lituzkete. Beren buruari mesede egitea hobetsi dute, helburu politikoengatik eta ekonomikoengatik.

Emakumeen futbolak zer behar du aurrera egin dezan?

Oraindik ikaragarri dago egiteko, baina jende profesionala behar du, anbiziotsua eta proiektu erreala dituen. Nik 11 urte daramatzat inbertitzen eta berrinbertitzen, baina badira berehalako etekina nahi dutenak ere, eta horrek sortzen dituen presak enpresen, klubaren nahiz erakunde publikoen artean tirabirak eta tentsioak eragiten ditu.

Egiteko dagoen horri erreparatuta, zer rol duzue ordezkariok?

Gure lana da jokalariei ahalik eta zerbitzu onena ematea. Unik Sports Managementek emakumeen futbola hazten laguntzen du; izan ere, federazioei, klubetako nahiz enpresei beren emaitzak hobetzen eta sozialki hazten laguntzen diegu. Gainera,

emakumeen futbolearen inbertitu nahi duten eta beren markaren balioak emakumeen futbolearekin lotu nahi dituzten enpreekin ere egiten dugu lan.

Emakumeen futbolearen lanean hasi zinenetik, zenbat aldatu dira gauzak?

Izugarri aldatu dira. Gogoan dut futbolari baten kontratua negoziatzera joan nintzen lehen aldia. Klubeko ordezkariak harrituta begiratzen zidaten, futbolariak FIFako agente bat zuelako eta ez zelako futbolariaren aita edo senitartekoa. Gaur egun, klubek nahiago dute agenteekin negoziatzea, askoz ere errazagoa delako formazioa duten bi alderen arteko negoziazioa gauzatu eta bi aldeek interesak uztartzeara.

Zer helburu dituzu aurrera begira?

Gertutik bizi izan dut gizon futbolariaren agenteek nola aldatu duten futbolararen industria, hala nola Mino Raiolak, Jorge Mendesek eta Pini Zahavik. Emakumeen futbolearen gauza bera gertatzea nahi dut, eta horregatik sartu naiz munduko agente garrantzitsuenek osatzen duten The Football Forum (TFF) elkartearekin. Raiolarekin eta Mendesekin kudeatzen ditut gauzak, eta emakumeen futbolarientzat aterabideak eta baliabideak bilatzen saiatzen naiz. Niretzat izugarritzko ohorea da elkarte horretako kidea izatea eta futboleko benetako protagonistak nola babesten ditugun eta haiei nola laguntzen diegun ikustea. Epe luzera begira, berriz, helburua argia da: futbolararen industriako kide guztiok norabide berean arraun egitea. Horrela baino ez dugu lortuko futbola behar duen mailara eramatea, genero bereizketarik gabe. ■

KAIKU

Kaiku

Urola Kostako baserritar familien esnea

Kaiku proiektua abeltzaintza-familiak osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagotik konpromiso sendoak du sektorearekin. Horri esker, abeltzain-familiak beren jarduerak garatzen jarrai dezakete, maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko inguruarentzat funtsezkoa den sektorean, ekonomia zirkularra eta herrietako lanpostuen garapena sustatuz.

Kaiku abeltzain-familia horietako bat Zestoako Joxe Ramón eta Garikoitzaren familia da.


Ahalik eta baliabide gehien aprobetxatzen zentratu dira buruaskiak izateko eta behiak modu erabat naturalean elikatzeko: fabrika txiki bat jarri dute baserrian, non zerealak ehotzen eta zapaltzen dituzten, Zestoako farreetan lantzen duten bazka osatzeko. "Ongarri naturalarekin lantzen dugu lurra eta bioeniztasuna errespetatzen dugu produktu kimikorik erabili gabe. Gure lan egiteko modua jasangarria da ingurumenarekin eta horretaz harro gaudu" dio Garikoitzek.

Joxe Ramón eta Garikoitzena bezalako Kaikuko familia-abeltzainen lanari esker, hurbileko produktua lortzen dugu, Urola Kostan bizi diren familiak ekolozitakoa: kalitate oneneko eta zapora handiko esnea. QR kode hau eskaneatuz gero, zure inguruan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku Km0 ekolozpen arduratsuko brik-esne bakoitzaren atzean dauden familiak ezagutu ahalko dituzu.

EZAGUTU



nortzuk garen **KAUKO BASERRITAR FAMILIAK** eta zein **HURBIL** gauden zuegandik
IRABAZI URTEBETEKO ESNEA DOAN.



Tiketa bai, anabasa ere bai

Datorren urtetik aurrera, derrigorrez ezarri beharko dute Ticket Bai sistema Gipuzkoako 55.000 zergadunek, eta beraz, baita Azpeitikoek ere. Fakturak zuzenean Ogasunarekin lotuko dituen sistema bat da Ticket Bai, eta zerga iruzurra saihestea du helburu nagusi. Dena den, hainbat zalantza eragin du egitasmoak herritarren artean.

Testua eta argazkiak: **Ihintza Elustondo.**

Azkenaldian bolo-bolo dabilen kontua da Ticket Bai sistemarena. Baina zer da zehazki? Izenak berak dioen moduan, tiketaren erabilerari baiezkua eman beharko zaio datorren urtetik aurrera; bai behintzat, Gipuzkoan. Hau da, jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek fakturazio software bat ezarri—edo aurrez zutena moldatu— beharko dute beren enprezetan. Software horren bidez, tiket bat sortuko da salerosketa bakoitzean, eta tiket hori sortzen den unean haren inguruko informazio guztia Ogasunera joango da zuzenean; era berean, informazio hori Ogasunera iritsi dela ziurtatu ahal izango du bezeroak tiketeko QR kodearen bidez. Horrela, lurraldeko jarduera ekonomiko guztia Ogasunarekin lotuko da, eta foru erakundeak denbora errealean jasoko du erregistratzen den salerosketa bakoitzaren informazioa. Modu horretan, iruzur fiskala saihestea da asmoa. Helburu nagusi horrez gain, zerga administrazioak zergadunari eskaintzen dion zerbitzua hobetzea ere bada Ogasunaren helburua, baita Gipuzkoako sektore ekonomikoa digitalizatzea ere.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak abiatutako proiektua da Ticket Bai. Dena den, lurralde bakoitzean modu bereizian jarriko da indarrean. Bizkaian 2024ra arte ez dute ezarriko, Araban 2022an indarrean sartzekoa da printzipioz, eta Gipuzkoan 2022ko urtariletik aurrera hasiko dira ezartzen, modu mailakatuan, sektorez sektore (eskuineko egutegian ikus daitezke epeak). Guztira, 55.000 zergadun eragingo die sistemak Gipuzkoan, eta beraz, baita Azpeitian jarduera ekonomiko gauzatzen dutenei ere. Aurrerantzean, salerosketa bakoitzeko tiket bat sortzera derrigortuta egongo dira negozio guztiak: ostalariak, merkatariak, autonomoak, gremioetako langileak... baita gozoki dendetako jabeak ere, bi gominola saltzen baldin badituzte ere.

Gaur-gaurkoz, borondatezko epean dago Ticket Bai sistemaren egutegia; hau da, oraindik ez da derrigorrezkoa sistema ezartzea. Borondatezko epe hori azaroan amaitzen zen berez, baina duela gutxi aldi hori luzatzea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hain zuzen ere, sektore bakoitza derrigorrezko epean sartu baino hilabete lehenago amaituko da borondatezko epea. Aldundiak zergadunak animatu nahi ditu Ticket Bai sistema borondatezko epean ezartzera; hainbat abantaila ditu horrek, Iruñe Yarza Ogasuneko foru zuzendariak azaldu duenez: “Batetik, probak egiteko aukera ematen du, derrigorrezko epea iritsi aurretik sistemak nola funtzionatzen duen ikasteko. Bestetik, kenkari handiagoak aplikatuko zaizkie sistema borondatezko epean ezartzen dutenei. Izan ere, derrigorrezko epean ezartzen dutenei %30eko kenkaria aplikatuko zaie, eta %60koa borondatezkoan egiten dutenei. Gainera, borondatezko epean ez dago isunik”.



Egutegia:

Aipatutako data iritsi aurretik, sektore bakoitzak Ticket Bai sistema martxan jarri beharko du derrigorrez.

- **2022ko urtarilaren 1a.**
Zerga kudeaketako profesionalak.
- **2022ko martxoaren 1a.**
Jarduera profesionalak.
- **2022ko maiatzaren 1a.**
Merkataritza txikia, ostalaritza, ostatuak eta gainerako profesionalak.
- **2022ko urriaren 1a.**
Eraikuntza eta higiezinaren promozioa, garraioa, eta aisialdi, kultur nahiz pertsonalekin erlazionatutako zerbitzuak.
- **2022ko abenduaren 1a.**
Fabrikazioa, merkataritza handia, telekomunikazioa, finantzak, artistak eta gainerako behartuak.

Ticket Bai



Ogasunaren datuen arabera, oraingoz 8.000 zergadun erregistratu dira Ticket Bai sisteman, eta horietatik 600 ari dira dagoeneko erabiltzen. Guztira, 40.000 faktura baino gehiago iritsi dira Ogasunera sistema horren bidez, eta 400 software daude jada erregistratuta.

Softwareak, nahieran

Baina nola ezarri sistema? Horretarako, ezinbestekoa da fakturazio sistema digitalizatzea. Hau da, aurrerantzean, Internet bidez iritsiko dira zergadun bakoitzaren fakturak Ogasunera. Hortaz, sistemak funtziona dezan, bakoitzak baliabide ezberdinak ezarri beharko ditu bere enpresan, aurrez ezarria zuen sistemaren arabera, eta beraz, egin beharreko inbertsioa ere ezberdina izango da zergadun bakoitzarentzat. Internetik ez zuen zergadunak ordenagailua erosi beharko du, Interneta jarri, software bat erosi... Aldiz, aurrez ere salerosketak software bidez egiten zituenak inbertsio txikiagoa egin beharko du. Finean, ordea, denek gauza bera egin beharko dute: Ogasunarekin zuzenean lotuko dituen sistema informatiko bat ezarri beren enpresan.

Horretarako, baina, aukera ezberdinak daude, Yarzak azaldu duenez. “Enpresa informatiko asko askotariko softwareak garatzen ari dira. Aukera oso ezberdinak daude, eta ondo azertu behar da eskaintza horretatik zein den zure beharretara ondoen egokitzen dena. Ez da gauza bera arropa denda bat, elektrizitate enpresa bat edo harategi bat izatea. Pisuarekin lan egiten dutenek, esaterako, software bidez Ogasunarekin lotuko dituen balantza bat ezarri beharko dute. Bakoitzak bilatu beharko du bere egoerara ondoen egokitzen den irtenbidea”. Foru zuzendariaren arabera, Ogasuneko webgunean Ticket Bai sistema ezartzen duten software garatzaile guztien zerrenda dago, eta zergadunei han begiratzea aholkatu die, software garatzaile batzuk sektore batean nahiz bestean espezializatuta daudelako.

Gauza jakina da zerga iruzurra tarteko diru asko galtzen duela Ogasunak. Baina galtzen den horretatik zenbat eskuratuko du Ticket Bai sistemaren bidez? Yarzaren esanetan, “oso zaila” da hori

kalkulatzea. “Ticket Baik iruzur asko azaleratuko al du? Badakigu zerbait azaleratuko duela, baina kopuru jakin bat ematea oso zaila da guretzat. Zerga iruzurra egiten jarraitu nahi duenari horretarako oztopoak jartzea da gure helburua, gero eta zailago jartzea. Egongo dira iruzurra egiten jarraituko dutenak, baina Gipuzkoako zergadun guztiei ordaindu beharrekoa ordainarazten saiatu behar du Ogasunak”. Garrantzitsua iruditzen zaio kontzientzia lana ere: “Jendeak konturatu behar du zertarako dagoen Ogasuna eta zertarako ordaindu behar diren zergak. Finean, Gipuzkoan inbertitzen dugu jasotako dirua: azpiegiturretan, osasunean, hezkuntzan... Guztion onerako da”.

Softekin, softwareak garatzen

Azpeitiko hainbat informatika enpresatan buru-belarri lanean ari dira bezeroei Ticket Bai sistema martxan jartzeko beharrezko programak ezartzen. Zenbait enpresak beste batzuek garatutako programak saltzen dituzte, eta beste batzuek garatu ere bai. Softekin informatika enpresak, esaterako, softwareak garatzen ditu, eta arlo ezberdinetarako balio duten programak dituzte: dendetarako, autonomoentzako, balantza behar dutenentzako... Saioa Larrañaga Softekinen langilearen arabera, “abaniko” zabala dute.

Ticket Bai sistemaren kontua ahoz aho hedatzen eta zalaparta eragiten hasi zenean, “sekulako mugimendua” izan zuten dendan, Larrañagak azaldu duenez. “Sekula ez da halakorik izan gure bulegoan. Telefonoa jo eta jo aritzen zen etengabe”. Orain, berriz, jendea “lasaitu” egin da, bi arrazoi tarteko: “Batetik, borondatezko epeari dagozkion dirulaguntzak eskuratzeko epea luzatu egin dute, eta bestetik, Bizkaian atzeratu egin dute sistemaren ezarpen epea”. Ondorioz, eskaerak gutxitu egin direla dio Larrañagak, baina kezka ere sortzen dio horrek. “Mundu guztiak pentsatzen du aurrerago jarriko duela martxan Ticket Bai. Baina noiz egingo dugu? Izan ere, gero denak batera etorriko dira, eta ez da denborarik egongo”.

Haren arabera, oraindik oso jende gutxi jarri du martxan Ticket Bai sistema. “Merkataritzan aritzen den jendea etorri da gehien gugana, baina autonomoak, igeltseroak, arotzak, elektrikariak... horiek ez dute Ticket Bai sistemaren berririk izan”. Larrañagaren ustez, jende askok oraindik ez daki sistema ezartzea derrigorra izango dela laster.

Informatika zerbitzuek beharren arabera propio garatutako softwareez gain, Ogasunak ere sortu du programa bat, doakoa: Faktura Bai. Funtzio bera du horrek ere; Gipuzkoako pertsona eta erakundeek fakturak zuzenean Ogasunera bidal ditzaten balio du. Larrañagaren arabera, ordea, mugatuak dira aplikazio horrek eskaintzen dituen aukerak. “Ticket Bai sistema ezartzean, jende askok pertsonalki laguntzeko babesa behar du, eta nire ustez, informatikako zerbitzuetara jo behar dute horiek. Konfiantzazko informatika enpresa batera joatea aholkatuko nieke nik, informatzeko eta bere negozioarako irtenbide egokiena bilatzeko”. Izan ere, Ticket Bai egiteko beharrezko sistema ezartzeaz gain, arazoren bat izanez gero, jarraipena egiten dute informatika zerbitzuek.

Ticket Bai sistemaren kontuak eragin duen zalaparta dela eta, jendea “nahiko aztoratuta” dago Larrañagaren ustez, baina herritarrei “lasai egoteko” esan nahi die. “Aurretik Interneta jarrita eta programa

informatiko bat erabiltzen zutenentzako ez da aldaketa handia izango. Azken bertsioa eguneratu baino ez dute egin beharko, eta horrek ez du kostu handirik. Lehendik ere ari ziren dendariak digitalizatzen, eta azkenean, horixe da sistema honek bezeroari eskatzen diona: digitalizatzea. Hori bai, konplikatua izango da orain arte digitalizazioan pausorik eman ez duten horientzako, inbertsio handiagoa egin beharko dutelako. Baina jendea lasai egoteko esango nioke, ez da hainbesteko aldaketa”.

Dendariak, atzeratzeko esperantzaz

Herriko merkataria ez daude Larrañaga bezain baikor egoeraren aurrean. Xabier Aldalur Dendartean elkarteko teknikariak azaldu duenez, merkatarien sentipena da orain ez dela horrelako sistema bat ezartzeko momentua. “Uste dugu lehentasun handiagoa duten beste neurri batzuk hartu beharko lituzkeela Ogasunak, Ticket Bai sistema ezarri aurretik. Adibidez, gauza jakina da Internet bidez saltzen duten denda handi horiek hemen ez dutela zergarik ordaintzen, eta ez al litzaieke lehenago heldu behar horiei? Horrelako enpresek zergen ordainketa guztia kanpoan egiten dute, askotan paradisu fiskaletan eta oso portzentaia txikietan. Dendariak, aldiz, lokal fisikoa edukitzeagatik zerga bat ordaintzen ari dira, zaborraren tasa ere bai... Kanpoko enpresa handi horiek ere hemen saltzen dute, zaborra sortzen dute hemen, eta ez dira ari ez zaborragatik ordaintzen, ezta hemen saltzeagatik ere, dendak ari diren bezala”. Izurriak merkatariei eragin dien kaltea erantsi behar zaio horri. “Sektore batzuetan oraindik ez da berreskuratu COVID-19 aurreko martxa, oraindik lehengo motibaziorik ez dagoelako. Ez da festarik egiten, lagunekin ez gara elkartzen lehen bezainbeste... Uste dut lehengora iristeko salto handia dagoela oraindik”.

Bizkaian sistemaren ezarpena atzeratu izanak eragina izan duela uste du Aldalurrek ere. “Bizkaiko albistearen berri izan genuenean, asko erlaxatu egin ziren, eta jendeak pentsatu zuen hemen ere atzeratu egingo zela. Askok pasatu dituzte azken bi-hiru hilabeteak Gipuzkoan ere atzeratu egingo zela pentsatuz. Orain arte, esango nuke oso jende gutxi jarri duela martxan Ticket Bai sistema. Oraintxe sumatzen dut dendariak berriro martxan hasten ari direla: ‘Zerbait egin beharko dut’, ari dira esaten”. Haren arabera, mobilizazio batzuk egiteko nahia dute merkatariek, Gipuzkoan ere, Bizkaian bezala, sistemaren ezarpena atzeratu dadin. Bada beste kontu bat, atzerapen hori oraindik “posible” izan daitekeela pentsarazten diena. “Aldundiak Dendartean eta lurraldeko beste bi erakunderi azterketa bat egiteko eskatu die, dendariak gaur egun zer digitalizazio maila duten jakiteko. Orain ari gara azterketa hori egiten, inkesta batzuen





bidez, eta azaroaren amaierarako jakinarazi behar dizkiogu emaitzak Aldundiari. Seguru asko, emaitzek adieraziko dute jende asko ez dagoela prestatuta oraindik digitalizazioan pauso hori emateko, inbertsio handiak egin beharko dituztela... Hori ikusita, atzeratzeko erabakia hartuko ote duten esperantza dago sektorean, nahiz eta Ogasunak esaten duen sistemaren ezarpenak aurrera jarraitzen duela. Uste dugu azterketa horrek erakutsiko duela oraindik dendari asko ez daudela horretarako prest. Ondorioz, ulertzen dugu posible dela, azterketa horretan oinarrituta, Ogasunak erabakia atzera botatzea”.

Beraz, Aldalurren arabera, dendariak ez daude prestatuta aldaketari aurre egiteko. Zer gabezia dituzte, ordea, Ticket Bai sistema ezarri ahal izateko? “Dendari asko adinean aurrera doaz, eta zenbaitek agian ez dute inoiz ordenagailu bat erabili, askok kutxa erregistratzaile batekin lan egin dute beti, eta orain, bat-batean...”. Adibide bat jarri du: “62 urteko merkatari bat bizpahiru urte barru jubilatzea pentsatzen ari da, eta hark ordenagailu bat erostea, Interneta jartzea, software bat erostea... Eta, horrez gain, adin horrekin sistemak nola funtzionatzen duen ikastea, laster jubilatuta egingo denean... Horrelako jende dezente dago dendarien munduan”. Haren arabera, dendarien batez besteko adina 50 urteren bueltan kokatzen zen duela urte batzuk, eta orain ez da gutxiago izango. “Ticket Bai ezarri beharrak zenbait pertsonaren erretiroa aurreratzea eragin dezake. Berez 65 urtera arte lanean jarraitzeko asmoa zuenak, orain, agian, horri aurre ez egiteagatik, lehenago itxiko du denda. Eta bitarte horretan, beste modu batera kotizatu beharko du edo jubilazio txikiagoarekin gelditu. Horrelako kasuak eragingo ditu kontu honek”.

Zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo, Aldalurrek ez du merkatari txikiak Ticket Bai sistemaren kontra dauden itxurarik eman nahi. “Iruzurra saihestu nahi da, eta hori ondo dago. Baina guk uste dugu orain ez dela horretarako momentua. Izurriaren kontu honi

Saioa Larrañaga Softekinen langilea eta Xabier Aldalur Dendarteaneko teknikaria.

**JENDEARI LASAI
EGOTEKO ESAN NAHI
DIO LARRAÑAGAK: “EZ
DA HAINBESTEKO
ALDAKETA”**

**MERKATARIEN
SENTIPENA DA ORAIN EZ
DELA HORRELAKO
SISTEMA BAT
EZARTZEKO MOMENTUA**

buelta eman eta gero eta salbuespen batzuk eginda ezarri beharko litzatekeela uste dugu. Esaterako, negozioaren jabeak 60 urtetik gora baldin badauzka, ondo legoke sistemaren ezarpenetik salbuetsita gelditzea. Agian, kasuan kasu aztertu beharko litzateke egoera”. Haren ustez, proposamenak ez ditu kontenplazten egon daitezkeen kasuistika guztiak. “Denentzako berdina da, eta uste dugu ñabardura batzuk egon beharko liratekeela”.

Gastuari aurre egiteko, laguntzak

Zergadun bakoitzak, bere beharren arabera, inbertsio handiagoa edo txikiagoa egin beharko du Ticket Bai ezartzeko. Baina zer kostu izan dezake halako sistema baten ezarpenak? Gutxi gorabeherako kalkuluak egin ditu Dendarteaneko teknikariak: “Ordenagailu bat behar baduzu, kalkulatu 600 bat euro; aurretik ez bazenuen inolako programa informatikorik, aukera ezberdinak daude, baina agian zure neurrira egin behar dizute softwarea, eta zure neurrira egindako programa batek 500 bat euro balio ditzake; askotan, horrelako programa bat enkargatu baduzu, hileroko mantenua behar du, eta hori ere ordaindu egin behar da; Interneta jartzea hilean beste 30 bat euro kostatuko litzateke... Hasierako ordainketa mila eurotik gora kostatu daiteke zenbait kasutan, eta gero, mantenuaren hileroko kuota hori ordaindu beharko litzateke. Pisuekin lan egiten dutenek, gainera, balantza jarri behar dute, eta 3.000 eurora gerturatzen dira Ticket Bai egitea ahalbidetzen duten balantzak”.

Ogasuneko foru zuzendari Yarzak onartu du beharrezkoa dela inbertsio bat egitea, baina haren arabera, Aldundia “esfortzu handia” egiten ari da zergadunei horretan laguntzeko. Aurrez aipatutako kenkarien kontua da Ogasunaren apustu nagusia. Nola funtzionatzen dute kenkariak, ordea? Ticket Bai sistema borondatezko epean ezartzen duenari egindako inbertsioaren %60 itzuliko dio Ogasunak; kenkari hori gehienez 5.000 euroko gastura arte aplikatuko da. Gauza bera derrigorrezko epean, baina, kasu horretan, %30ekoa izango da kenkaria. Kenkari hori lehenbailehen aplikatzeko, Ogasunak esfortzua egin duela azpimarratu du Yarzak: “Eragile ekonomiko ezberdinekin bilerak egin ditugu, eta ikusi genuen haietako askok kontu bat aipatzen zutela: kenkaria aplikatzea ondo dagoela zioten, baina inbertsioa egin eta hurrengo errenta aitortpena edo sozietate zerga aitortpena egin arte itxaron behar zutela kenkari hori aplikatzeko. Likidezia arazoa zutela nabarmentzen zuten, eta horri aurre egiteko, neurri bat hartu dugu: kalkuluak egingo ditugu, eta ikusiko dugu ea zergadunak 2020ko aitortpenean lekua daukan kenkari hori aplikatzeko; hala bada, oso azkar itzuliko diogu dagokion dirua”.

Horrez gain, beste dirulaguntza batzuk ere jarri dituzte indarrean: merkataritza txikiak eta ostalariek mila euroko laguntza jaso ahal izango dute, baldintza batzuk betetzen baldin badituzte. “Inbertsioa egitea beharrezkoa den arren, saiatu gara laguntzen; gure borondatea hori da. Oraindik harremanetan gaude eragile ekonomikoekin, eta aldatu edo konpondu daitezkeen beste gauza batzuk ikusten baldin baditugu, saiaturako gara horiei erantzuna ematen” . ■■■■



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com e-postara urriaren 18a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.

Abuztuko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 39. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Arantxa Galarraga bazkidea izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Deskonektatzea nahi dudanean, gustuko dudana musikara jotzen dut"

IRAIA BEREZIARTUA BIOLIN JOTZAILEA

Plazandrearen definizioarekin ez da identifikatzen, baina ia bizi osoa darama Iraia Bereziartuak agertokietan, etxekoetan zein urrutikoetan, handietan eta txikietan. Ia bizi osoa, eta ia beti biolina eskuetan, hari estilo anitzetako doinuak atereaz. Musikak bizi du eta musikatik bizi da, hasi zenean horretara iritsiko zela asko uste ez bazuen ere.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Marrazkia: **Olatz alkorta**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

3urterekin hasi zen Iraia Bereziartua (Azpeitia, 1988) biolina jotzen, eta gaur arte. "Ahizpak jotzen zuen, eta inbidia. Nik uste hori izan zela". Horrela azaltzen du txiki-txikia zela musika instrumentu horri eutsi izanaren arrazoia. Dena dela, Bereziartua-Agirre sendian musikak eta musika ikasketek izan duten garrantziaren erakusle ere bada hain txikitatik musikara bideratu izana. "Etxean musika ikastera bultzatu eta lagundu izan gaituzte".

Musikari lotuta dituen lehen oroitzapenek jendaurreko lehen agerraldiak dute zerikusia. Gogoan du bere lehen agerraldia. Enparan dorretxean izan zen, biolina ikasten hasi eta hilabete gutxira. "Aretoaren bukaeraraino joan behar nuen, azken atrilean nintzen eta. Baina ahizparen ondoan gelditu nintzen, eta hark alde egiteko esan zidan, joateko nire lekura. Ez nago seguru horrela izan al zen ere, baina nik horrela gogoratzen dut", kontatu du, barrez. "Urduri egongo nintzen", dio, eta gaineratu du: "Agian

momentu txiki bat besterik ez zen izan". Jendaurreko lehen aldi hartako estuasun unearekin batera, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen ETB1eko saioan parte hartu zueneko ere gogoan dauka. Kasu horretan, gainera, ez dauka bere oroitzapenen egiazkotasunarekin zalantzarik, pasarte bideoan gordeta dauka eta. 5 urte zituen orduan, eta ahizpa zaharrenak eta biek jo zuten biolina saioan. Plato hartan ere izan zuen estuasun momentu txiki bat Bereziartuak. "Jotzea bukatu genuenean, Txirrik esan zuen: 'Saria merezi dute, ezta?'. Ni poz-pozik nengoen, eta derrepente, esan zuen: 'Beno, publikoari galdetuko diogu'. Eta ni, orduan, zeharo urduri jarri nintzen, erabat kezkatuta, saria emango ote ziguten ala ez". Barrez hasi da berriro, mugikorrari so, orduan jarri zuen aurpegiari begira.

Harrezkero makina bat agertoki zapaldu ditu azpeitiarrak. Hala ere, plazandre petoa denik ez du uste. "Berez lotsatia" dela dio, eta momentuaren eta emanaldiaren arabera lasaiago





edo urduriago aritzen dela: “Ezagutzen dut eszenatoki batera igotzeko gai ez den jendea, eta ni, berriz, txikitatik aritu izan naiz jendaurrean. Orduan, ez dakit plazandrea naizela esan daitekeen, baina bai, hori da nire lana”.

Mundu berri bat

Denbora-pasa hasitakoa pasio, eta pasioa ogibide bihurtu zaio Bereziartuari, baina ez zen berehalakoan jabetu musikari profesionala izatea aukera bat izan zitekeela beretzat. Irakasle ikasketak alde batera utzi, eta musika ikasteari ekin zion 17 urterekin. “Ez nintzen kontziente, ez zitzaidan burutik pasatzen hori egitea zegoenik. Ez bada familiakoek bultzatzen zaituztela edo bide hori egin duen lagunen bat gertu duzula, inork ez zaitu horretara bideratzen, ez daukazu informaziorik ere. Musika *hobby* gisara hartzen da, ez gerora hortik bizitzeko aukera bezala”, azaldu du.

Unibertsitatean irakasle ikasketei ekitearekin bat hasi zen Bereziartua Donostiako kontserbatoriora joaten, bi ikasketak aldi berean egiten. “Musika ez lagatzeagatik, eta, ahal baldin banuen, titulu ofizialen bat ateratzeko” hasi zen kontserbatorioan. Han, ordea, mundu berri bat ezagutu zuen; musikaren bidetik zer eta zenbat aukera izan zitezkeen ikusi zuen gertutik. “Eta gustatu egin zitzaidan”. Musika ikastea aukeratu eta musikari izateko helburuarekin lanean ari zen bere adineko jendea aurkitu zuen azpeitiarrak kontserbatorioan, eta horrek “asko erraztu” zion unibertsitatean hasitako ikasketak utzi eta

buru-belarri musika ikasketei heltzeko erabakia. “Jada ez nengoen bakarrik”, dio.

Musika, lan eta zaletasun

Eztake, Inharrak, Bentazarreko Mutiko Alaiak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, hainbat kolaborazio, ikuskizun, emanaldi... “Gauza desberdinak egitea” gustatzen zaio musikari azpeitiarrari, askotariko estiloak lantzea eta probatzea. “Beti estilo bakarrean ibiliz gero, ez dakit aspertu egingo nintzatekeen, baina bai esan dezaket ez litzakeela hain interesgarria izango”. Biolina da ‘bere’ instrumentua, baina biolontxelo, biola eta pianoa –“azken hori derrigorrezkoa da goi mailako musika ikasketetan”– ere jotzen ditu, baita bateria ere,

Iraia Bereziartua

- **Jaiotze data:** 1988ko abenduaren 31.
- **Ikasketak:** Musikako goi mailako ikasketak biolin espezialitatean eta biolineko interpretazio masterra.
- **Lanbidea:** Musikaria eta musika irakaslea.
- **Musikaria ez bazina...** Psikologia edo irakasle ikasketak ziren nire aukerak, musika hautatu aurretik.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Kontzertuetara joatea gustatzen zait, eta itsasoa, igeri egiteko edo begira egoteko. Eta, ahal denean, lagunekin egotea.



aspaldian “lagata” dagoen arren. Eta, orain, kontrabaxuarekin hasi da.


Azpeitiko eta Getariako musika eskoletan irakasle da Bereziartua. Biolina eta biolontxelo irakasten ditu, eta 7 urtekoei musika hastapeneko eskolak ematen ere hasi da. Hirugarren adinekoekin ere egiten zuen lan, baina momentuz etenda dituzte eskola horiek, “COVID-19agatik”. Gainerakoan, “adin guztietako ikasleak” ditu, haur, gazte zein heldu.

Igeriketan ibili izan da oraintsu arte, “eta oso gustura, bereziki, igeriketako taldekideekin”. Mendira ez da “gehiegi” joaten, baina pasierak gustuko ditu. Irakurzalea da, eta puzzleak egitea ere asko gustatzen zaio. Lagunekin ibiltzea da oso gustura egiten duen beste kontua, baina aukera hori nahi baino gutxiagotan izaten duela dio, lana eta ordutegiak tarteko.

Horiek dira lanetik eta musikatik kanpo dituen zaletasunak, baina horrek ez du esan nahi musika lanerako bakarrik gordetzen duenik.

“Musika *hobby*a ere” bada Bereziartuarentzat. Interpretatzerakoan bezala, entzuterakoan ere musika estilo desberdinak probatzea gustatzen zaio. “Etxean, hori bai, normalean aurretik ezagutzen dudana musika entzutea gustatzen zait, gehiago kostatzen zait musika berria entzutea. Deskonektatzea nahi dudanean, gustuko dudana musikara jotzen dut”, zehaztu, eta “Anari asko” entzuten duela gaineratu du. Orain arte jo dituen piezen artean, Txaikovskiren biolinerako kontzertua da beretzat kutunena klasikoaren artean.

Ikasturte hasi berrira egokitzen eta pandemiaren geldialdiaren lozorrotik esnatzen ari da Bereziartua. Oiasso Kamerata sokazko orkestrarekin emanaldiak egiten dabil azkenaldian, geldialdiaren aurretik martxan zituen beste proiektu batzuk zertan diren edo izango diren argitu bitartean, eta aurrera begira proiektu berri batean murgiltzeko prest da. ■■■



URRATEGI
INTERIORISMO
barne diseinua

Arretxe 9
20730
Azpeitia
943-85 72 44

Arrogueta 27
20600
Eibar
943-85 72 44




www.urrategiinteriorismo.com

dica www.dica.es

Sarea

Arrain hanek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, inoiz ere iritsi arte. Baina nondik hasika da? Zein zirkuitutatik joan behar du? Lau dituzu aukeran.



MARIPURTZILI!
POZEK ETZULI
ZARA ESKOLARA,
EZTA?



Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zala. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lehen, zutabe eta area bakoitzeko.



Zaku Lasterketa

Lehen iruditik bigarrenera

bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina tartea horretan gauza asko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Ikusten al dituzu?



Mezu gordeak

Erabili marrazkietoen alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioten jakingo duzu. Esaldi horietako bat esatera zehar bat da, zein da?

1 _____

2 _____

3 _____

4 _____

ALFABETOA															
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	1	2	3	4	5	6

Hamabostekoa

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuine ez dira erabat simetrikoak. Bilo itzazu bien artean dauden aldeak. Hamabost dira guztira.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

AZPEITIAK

bat gehiago



**BATU UZTARRIAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Zerbitzaria behar da



OIER ETXEBERRIA

Morroiari nolakoa zen abarkak lotzerako antzematen bazitzaion, pertsonari bezero denean bistaratzen zaio zer gizatasun duen. Eska daiteke "Gin-tonica. Bitter-kas bat mesedez". Edo "arratsalde on, mosto bat, ahal duzunean". Platera zikinak mahaitik jasotzerakoan, askok ezikusiarena egiten dute. Zenbaitek gorputza paretik kentzeko keinua atzerantz. Gutxi batzuek tresnak bildu eta eskura ematen dituzte.

Teknikoki, mostradorearen barruko aldea kanpoko baina altuxeago egoten da, barrako mugimenduak errazteko. Halaber, ematen du, bezeroak sorbalda gainetik hitz egiten diola edariak prestatzen ari zaionari. Txakurrari deitzeko bezalako txistuak, txanponarekin mahai gaineko kaskatekoak eta "ni lehenago nengoen!"-ak. Gauaren lainezak besteekiko errespetua galarazten dionak, agian, hobe luke egun argiz ibiltzea.

Ezkontzetako argazkilaria, jolas parkeko monitorea edo turismo bulegoko gida. Denek lan egiten dute besteek ongi pasa dezaten, besteak ongi pasatzen ari diren bitartean. Beti asteburueta erreleboan, beti korrontearen aurka igeri. Jendeak nekatu egiten du, oso pozik dabilenak are gehiago.

Ofizioaren gogorra dirudi garagardo kupelak garraiatzeak, edalontzi zikinak eskuz garbitu

edo goizeko ordu txikietan beirazko botilak kaxetan sailkatu beharrak. Hala ere, ez da panorama gozoagoa inor ez dela etorriko jakitun, pertsiana jaso eta zain dagoenarena.

Agian, ostalaritzako hitzarmenak artikuluren bat dakar malekoiko terrazentzat, non jardunaldia eguraldiaren arabera egokitu dakieken. Harrituko gintuzkete ordutegi inprobisatuek, jardunaldi amaiezinek edo jenderik ez dabilela-eta etxera bidalitakoek. Ordukako jornalarietaren oreka eternala. Zer prezio du Eguberri egunez senideak mahaian utzi eta fitxatzaera joateak? Zenbat balio du nerabezaroaren ordubetek?

Gaur, besteren zerbitzura jarriko ginateke sos batzuen truke. Bihar, berriz, prest gaude zerbitza gaitzaten ordaintzeko. Demagun ikasle nerabe bat, larunbat gauez lagunekin parrandan. Biharamunean, bere ama da fregona hartu eta taberna garbitzera doana. Lankide bati entzuten nion, ziklikoa iruditzen zitzaiola astearen joana, irabazi eta gastatu; hamsterra gurgpilean

**GEROZ ETA
NABARMENAGOA DA
NEGOZIO
TRADIZIONALEKIKO
SINPATIARIK EZA**

bezala sentitzen zela, jira eta buelta.

Eskolako sektore ekonomikoen azalpenetik, hirugarrenean, medikuak, irakasleak eta suhiltzaileak ditut gogoan. Beharbada, errepide bazterreko sasi garbitzaileak, *kellyak*, egunkari banatzaileak eta ehorzleak ere aipatuko zizkiguten, eta ni naiz akorduan hartu ez zituenak. Eskolatik kanpora, entzunak gara zeinen gazterik hasten ziren batzuek ume zain eta besteak ezkontzetan *consomméak* partitzen. Ikasgai ederra da gazteak ikasten jarraitzearen garrantziaz jabe daitezen.

Azken boladan, geroz eta nabarmenagoa da negozio tradizionallekiko sinpatiarik eza, afaritarako zerbait eskatzean kasu. Tabernara telefonoz deitu, kroketa errazio bat eta tortilla patata eskatu, eta banatzaileari ordaintzea ez da aski erosoa. Horren orde, bitartekaritza aberasten ari diren enpresen aplikazioak hobesten dira. Menua klikatu, helbidea idatzi eta transferentzia egin. Neuk entzuna da zoragarria omen dela "interakzio pertsonalik gabe" ogitarteko bat eskatu ahal izatea.

Iragarkiak ikusten dira jatetxe dotoreetan bezala taberna zuloetan. Sukaldaria, garbitzailea, zaintzailea, langilea behar dira. Zerbaitegatik izango da. Kamarero, kafe bat; hutsa ta doblea. ■

Azpeitiarrak Oktoberfesten



TESTUA: NORA ALBERDI

ARGAZKIAK: NORA ALBERDI ETA

UTZITAKOAK

Badira Alemaniako Munich hiritik oso hurbil egiten den Oktoberfest garagardoaren jaira joan diren zenbait azpeitiar. Iñigo Agirre eta Meliton Santesteban 1981. urtean joan ziren elkarrekin, eta Kepa Urbieta, berriz, 2014. urtean beste hiru lagunekin.

Duela 40 urte, Santestebanen Ford Fiesta zaharrean sartu eta han abiatu ziren Agirre eta biak garagardoaren jaia egiten den hirira. “Lehenik Atotxan Reala ikusi genuen, eta partida amaitu zenean, bidaiari ekin genion. Garai hartako mapa baten laguntza izan genuen”, dio Agirrek. Herrialde batetik bestera igarotzeko, autoaren atzealdean bi traje zintzilik jarri

zituzten, horrela mugak pasatzeko erraztasun handiagoa izango zutelakoan. Urbietak eta haren lagunek, berriz, futbola aitzakia hartuta egin zuten Munichera bidaia, asteburu hartan Oktoberfest ospatuko zela jakitun. Bayern Munichen partida baterako sarrerak lortu zituzten, eta orduan Xabi Alonsok jokatzeko zuen taldearen partida ikustera joan ziren. Guztira, lau lagun animatu ziren, eta han bizi zen azpeitiar batekin ere elkartu ziren. Hiru egun egin zituzten hirian, ostiralean abiatu eta

**AGIRRE ETA
SANTESTEBAN 1981.
URTEAN JOAN ZIREN
OKTOBERFESTERA, ETA
URBIETA 2014AN**

astelehenean buelta, duela zazpi urte, 2014. urtean.

Munichetik ordu erdi ingurura dagoen lur eremu zabal batean egiten da Oktoberfest; karpak muntatzen dituzte han, festak irauten duen asteetarako. Barruan musikariak, dantzariak, zaldiak, zirkua... denetarik topa daiteke. Santesteban eta Agirre joan ziren garaian egurrezko etxoletan egiten zen jaia. Karpa haietako bakoitza garagardotegi batena zen, eta haietan, mundu guztiko jendearekin egin zitekeen topo, batez ere, gazteekin.

“Izen horrekin, guk uste genuen urrian egingo zela jaia, baina ez, urriko lehenengo igandean bukatu egiten da. Egia da informazio askorik gabe joan ginela. Bertan *au pair* moduan lanean zebilen euskaldun



Meliton Santesteban eta Iñigo Agirre, soziedadean. Ez dute Oktoberfesterara egin zuten bidaia hartako irudirik. NORA ALBERDI

batekin elkartu ginen, eta asko lagundu zigun hark”, azaldu du Agirrek. Santesteban eta Agirre aste barruan joan ziren Alemaniara. Oktoberfest egiten den eremura joan aurretik, Munich ezagutzen pasatu zituzten zenbait egun, eta frantsesa eta ingelesa oso gutxi kontrolatzen bazituzten ere, “eskuekin keinuak eginez” ez zuten arazorik izan bertakoekin harremanak izateko.

Eskerrak gizon hari

Urbietak eta haren lagunek, berriz, asteburua pasatu zuten Alemanian. Larunbatean, Munich ezagutzeko

aprobetxatu zuten eguna; arratsaldean futbol partida ikustera joan ziren, eta handik Oktoberfesterara: “Partida amaitu ostean, jende ugari zegoen trenera igo nahian, eta guk justu-justu lortu genuen sartzea. Gu sartu eta gutxira, beste gizon bat iritsi zen, eta segurtasunekoei adarra jotzen hasi zen. Gizona hizketan hasi zitzaigun, eta hasieran kasurik ez geniola egingo erabaki genuen. Baina, halako batean, lagun batek esan zuen gizonak jakinarazi ziola, sarrerarik ez bagenuen, ezingo genuela garagardoaren festara sartu. Nahi bagenuen berarekin

joateko eta sartuko ginela esan zion lagunari. Guk barre egin genuen”. Badaezpada gizonarekin hitz egiten jarraitzea erabaki zuten, eta ondoren, hari segitzea, ez zutelako jaia non egiten zen arrastorik.

Azkenean, berarekin sartu ziren. “Gizonaren atzetik gindoazela, hainbat karpa pasatu eta gero, izugarritzko ilara zegoen batera sartzea erabaki genuen. Ilara osoa pasatu eta segurtasunekoarekin hitz egitera joan zen gizona. Handik gutxira, barrura sartu zen, eta gu ilararen atzean gelditu ginen. Bost



Kepa Urbietta eta haren lagunak Oktoberfest garagardo festan. UTZITAKOA

minutura, karpatik atera eta gugana etorri zen, eta ilaran gure aurretik zeudenak baino lehenago sartzeko aukera izan genuen. Gainera, barruan mahai bat genuen guretzako gordeta. Zorte handia izan zen gizon harekin topo egitea; hari esker ezagutu genuen benetako giroa. Hura aurkitu izan ez bagenu, ez dakit zer egingo genukeen Oktoberfesterara sartzeko. Orain ere ez nuke jakingo karparako sarrerak nola hartu behar diren edo zer egin

behar den. Garai hartan ezer begiratu gabe joan ginen, Euskal Herrian egiten diren garagardo jaien antzekoa izango zelakoan”, esan du Urbietak.

Municheko kanpina

Santestebanek eta Agirrek Munich kanpoaldean kokatzen zen kanpin batean pasatu zituzten hirian igaro zituzten gauak. Lehen egunean kanpina ezin aurkituta ibili zirela kontatu dute. Taberna batera sartu ziren, han laguntza

eskatzeko asmoz, eta jabeak turkiarrak zirela ohartu ziren. “Gu lasai-lasai sartu ginen barrura, eta garagardo bat eskatu genuen. Gero, keinu bidez, kanpina non zegoen galdetu genien, eta mapa batekin, nola edo hala lortu genuen hara iristea”. Handik bi egunera, Oktoberfestetik bueltan, gaueko ordu txikietan, kanpina ezin aurkituta ibili ziren berriro ere. “Gizon batekin egin genuen topo, eta hari galdetu genion kanpina



non zegoen. Hark esan zigun beste puntan zegoela; hegoaldean bageunden, iparraldean zela. Hain galduta ikusi gintuenez, berari jarraitzeko esan zigun, eta kanpinerraino eraman gintuen”, azaldu du Santestebanek. Beste egun batean, berriz, kanpinera heldu eta kanpin denda ezin aurkituta ibili ziren. Hala, bat alde batetik eta bestea bestetik joatea erabaki zuten, eta gero ezin elkar topatu. Santestebanek halako batean aurkitu zuen Agirre, ordubete bueltaka

ibili ostean. Heldu zenean, laguna kanpin denda barruan zegoen lo.

Txundituta

Hiru azpeitiarrak txundituta gelditu ziren Oktoberfest kokatzen den eremuaren dimentsioarekin eta bizpahiru asterako egiten duten muntaiarekin. Urbietak dioenez, karpa batetik ateraz gero, oso zaila da beste batean lekua topatzea. “Gogoan dut nola geunden gu, lau lagun, eta beste lau neska zortziko mahai batean. Atzean, berriz, Kanadako mutil batzuk zeuden. Haietako bat gugana hurbildu zen, eta ez baginen mahaitik joaten indarrez aterako gintuztela esan zigun. Tentsio pixka bat izan genuen, baina guk ez genion kasurik egin. Handik gutxira, haietako batek izugarritzko mozkorra harrapatu eta segurtasunekoak kanpora bota zuen; haren atzetik joan ziren gainerako guztiak”.

Garagardo festa erraldoian musikarik ez da falta izaten jaia girotzeko. Agirre eta

HIRU AZPEITIARRAK TXUNDITUTA GELDITU ZIREN OKTOBERFESTEN EREMUAREN DIMENTSIOAREKIN

Santesteban joan ziren urtean *Los Pajaritos* abestia oso modan zegoen, eta Oktoberfesten bertan ere entzun zutela dio Santestebanek: “Abesti harekin zoratu egiten ziren denak”. Dena den, Alemaniako dantzak eta soinuak entzuteko aukera ere izan zuten Urbietak eta haren lagunak. “Bazen han denek ezagutzen zuten abesti bat. Musika banda kanta hura jotzen hasten zen aldiro, jendea mahai gainera igo eta kantuan hasten zen. Guk ere ikasi egin genuen azkenerako”, gogoratu du Urbietak.

Santestebanek eta Agirrek zaila ikusten dute esperientzia berriro errepikatzea: “Batzuetan esaten dugu erdi brometan berriro joango garela, baina dugun adinarekin, ez litzateke gauza bera izango. Pena da orduko argazkirik ez edukitzea. Kamera analogiko batekin atera genituen argazkiak, baina goiz batean, karreteka kamera barruan zegoela bueltak ematen hasi zen, eta zerbait arraroa gertatzen zitzaioala konturatu ginen. Kamera ireki genuen eta argazki guztiak pikutara joan zirela ohartu ginen”. Urbietak dio lagunartean komentatu izan dutela haurrak koskortzen direnean berriro joango direla bidaiaren bat egitera, baina “beste hiri batera”, jada Munich ezagutzen dute eta. ■

Zapata berriak



MIREN SEGUROLA

Haur bat zapata berriekin bezala. Esamolde horrekin adierazi ohi dugu zer sentitzen dugun zerbait lehen aldiz egiten dugunean edo zerbait lehen aldiz bizi dugunean. Zaharkituta geratu da gaur egun esamoldea. Beste zerbait esan beharko genuke. Haur bat jostailu berriarekin. Telefonoarekin. Telesail berri batekin. Sare sozialetan ezagutu duen musikari, kirolari edo pertsonaia berriarekin. Youtubeko kanal berriarekin. Ikusi duen bideoarekin. Hamaika adibide garaikideago aipatu daitezke gaur egun, haurrei lehen aldiz zirrara eragiten diena adierazteko.


Esamoldeak esamolde, antzera nabil ni ere orrialde honetan, lehen aldiz. Nola kabitut asmatu ezinik. Non eseri, nora begiratu, zer esan. Mundua ez ezik gure herria ere aldatu duen pandemiaren bosgarren olatuaren amaieran hartuko dut lekua bazter honetan. Garai arraroak bizi ditugu, eta izango da zer esana eta zer kontatua. Baina Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko koordinatzaile gisa, ahaileginduko naiz Azpeitiari euskararen betaurrekoekin begiratzin. Ustez euskaldunak baikara. Euskaraz bizi baikara. Arnasgunea baita Azpeitia. Baina ispiluari begiratzin gero, herrenka gabiltzala ere erraz ohartu gaitezke. Beraz, hausnarketarako bideak ere zabaldu nahiko nituzke, postura okerrak zuzentzea ezinbestekoa delakoan orekari eusteko, edozein yoga saiota bezala.

Herritar gisa azkurea eragiten baitit astearteroko azokan kartel gehienak erdara hutsean ikusteak, udal ordezkariak euskal erdiko telebista publikoan gazteleraz entzuteak, hornitzaileen fakturak euskaraz ez jasotzeak, zineman edota *streaming* plataformetan nire hizkuntza desagerrarazita egoteak, eta abar eta abar eta abar. Hamaika kontu aletzeko aukera emango dit leihok berri honek, eta gustura helduko diet horiei, tarteka yoga irakaslea sentitzearren bada ere.

Mundua, ordea, ez da plazako kioskoan edo herriko tabernetan bukatzen. Bateko eta besteko kontuek eragina dute gure eguneroko bizitzan, eta horiez hitz egitea ere garrantzitsua da, gure keinu edo ohitura batek beste nonbait sortzen duena ulertzeko eta ikusarazteko. Pandemiak erakutsi digu mundua zein txikia den. Hango saguzahar batek zer eragin dezakeen hemen. Edota munduaren beste puntan mikrotxipen ekoizpena apaltzeak nola gera ditzakeen Euskal Herriko enpresa handienetakoak zenbait astez. Zapata berriak non erosten ditugun edota nork eta zer baldintzatan egiten dituen ere hausnartu beharko genuke, zer-nolako mundua elikatzen ari garen ikusteko. Luis Enrique Soriano-ren omenez bada ere. ■■■

**AHALEGINDUKO NAIZ
AZPEITIARI
EUSKARAREN
BETAURREKOEKIN
BEGIRATZEN**


MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KAMPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

2021eko SANTU BERRIYER





Sansinenea industrialdea, B2 · Zestoa

943-44 30 01

gipuzkoa@renovalan.com

www.renovalan.com

RENOVALAN



- Birgaitze energetikoak • Irisgarritasuna - Igogailuak • ITE konponketak
- Arriskuak kentzea • Urbanizazioak • Estalkiak • Diru laguntzen kudeaketa

EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA



Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

*Euskarari,
agurra!*





Ilustrazioaren magia

Marrazkiak han eta hemen egiten ditu Iban Izagirrek. Ilustratzailea da, eta sormenari tiraka, hainbat euskarritara eraman du bere zaletasuna. Irudi errealistak nahiz irudimenez jantzitakoak egiten ditu, horietako batzuk paperean, beste asko bestelako mihiseetan. Irudimenak eta gauza berriak probatzeko grinak ate berriak ireki dizkio azpeitiarrari.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Maialen Etxaniz eta utzitakoak**.



HORMA IRUDIAK

Asko eta askotarikoak dira irudigile azpeitiarrak egindako horma irudiak. Gogoan du aurreneko muralak gaztetxeetan eta herri mugimenduentzat egin zituela. “Ondoren hasi ziren enkarguak iristen”, kontatu du. Saltokietan, parkeetan, frontoietan... egin izan ditu muralak. Azpeitiko Xaguxatar parkeko horma irudia, esaterako, Izagirrek eta Iñigo Bordak egindakoa da. Irudian, Izagirre Andoaingo (Gipuzkoa) Ondarreta ikastetxean murala egiten.

MARRAZKI DIGITALA

Iban Izagirrek ilustrazioko goi mailako heziketa zikloa ikasi zuen Gasteizko Arte Eskolan. Han ikasitakoak Landa estudioan jarri zituen praktikan, Erein argialetxearen eskutik. Orduz geroztik, askotariko proiektuetan murgilduta ibili izan da azpeitiarra. Sormena da Izagirreraren irudimenaren motorra, baina Euskal Herriko ilustratzaileen lan aukerak “murrizak” direla iritzita, bere kasa gauza berriak probatzen aritu da azken urteetan. Ordenagailua da gaur egun gehien erabiltzen duen tresna, bertan sortutako irudiak beste hainbat euskarritara eramaten baditu ere. Animazioarekin aurreneko saiakerak egitera ere ausartu da.



ESKUZKO LANETAN, FIN

Ordenagailuan ez ezik, eskuz ere egiten ditu marrazkiak: posterrak, koadroak, pegatinak... Baina horren ohikoak ez diren euskarrietan ere aritzen da; esaterako, egurrezko oholen gainean. Apaindu daitekeen edozer gauza apaintzen du akuarelekin, pintura akrilikoekin, espraiekin... Era guztietako marrazkiak sortzea du atsegin, edozein euskarritan. Irudian, Artzabal baserrirako lan bat egiten.



DETAILEEN XEHETASUNA

Izagirrek asko zaintzen ditu xehetasunak eskuz sortzen dituen irudietan nahiz marrazki digitaletan. Horretarako margo, pintzel eta pintzelkada desberdinak erabiltzen ditu. Irudian, akuarelekin eskuz egindako txori bat.



TATUAJEEN MUNDUAN MURGILDUTA

Duela urte gutxi bide berri bati ekin zion Izagirrek. Hain zuzen, tatuajeen munduan murgiltzea erabaki zuen, arlo hori "indarrean" zegoela ikusita. Aurrez inoiz halakorik egin gabe zegoen arren, probatzea erabaki zuen, eta gustatu egin zitzaion. Beraz, tatuatzaile izateko beharrezko baimenak lortu eta horiek egiteari ekin zion. Lagunei eta ezagunei tatuajeak eginez trebatu zen, eta Keizpe estudioa ireki zuen ondoren. Gaur egun, tatuatzaile profesionala da, nahiz eta berak ilustratzailetzat duen bere burua. "Jendearekin harremanak izateko eta haiek zure lana begiko dutela sentitzeko aukera ematen du tatuajeak. Hori da alderik onena. Dena den, ardura handiko lana da", dio.



SERIGRAFIAREN ZALE

Serigrafia izan da azpeitiarrak probatu duen beste tekniketako bat; gehienbat oihalean inprimatzen ditu irudiak. Sortutako marrazkiak diseinu gisa erabiliz, poltsak, jertseak, kamisetak... serigrafiatzen ditu bere tailer txikian. Kolore bakarreko tintarekin nahiz kolore gehiagorekin sortzen ditu irudiak.



MARRAZKIZ JANTZITAKO LITERATURA

Marrazkilari eta tatuatzaile ez ezik, idazle lanetan ere aritutakoa da Izagirre. Lan editorialaren barruan, umeentzako nahiz helduentzako proiektuak egin ditu. *Trapu zaharrak* izan zen berak diseinatu, idatzi eta ilustratutako aurreneko lana. Haren ondotik plazaratu zituen *Berrikuntzak zirku ttipian* eta *Pottokok gaupasa egin du* izeneko liburuak. Azpeitiari lotutako lanak ere egin ditu. Esaterako, Izagirrerren irudiek ilustratzen dituzte *Azpeitia ezagutzen* unitate didaktikoa edo Lagun Onak futbol taldearen *Izen eta izan* ipuina. “Ipuinak ilustratzearen alderik onena lanerako independentzia da. Baina, aldi berean, lan bakarti xamarra da”, dio.

SKATEAK, MIHISE

Patineteak koadro ere bihurtu ditu. Duela bost urte inguru otu zitzaion ilustrazio digitalak eta akuarelaz egindakoak patineteetan jartzea, eta emaitzarekin gustura gelditu zenez, horiek sortzen jarraitzen du gaur egun. “Oso kirol ikusgarria delako eta kaleko kultura gogoko dudalako gustatzen zait skatea. Taulak apaintzea skateari egindako omenaldi moduko zerbait da. Gainera, ondo gelditzen dira hormetan zintzilik”, kontatu du. Marrazkiak egiteko ezohiko euskarria da, eta hori da Izagirrek atsegin duena. ■



SOKA LUZEAN



JANIRE ALKORTA

$$\text{CH}_a^0 \text{C}_8 \text{H}^{10} \text{N}_4^0 \text{O}_2$$

Arazo bati aurre egiteko lehen pausoa arazo bat daukagula onartzea omen da. Eta bai, etengabe produzitzeak plazera ematen dion gizarte honen partaide aktiboa naiz ni ere. Nire errendimendua jaitsiko den beldurrez edo, ezin naiz etxetik atera nire lehen kafeina (kafetan) dosia hartu gabe. Harreman toxiko bat, mozkortzea edo igande arratsalde osoa pelikula txarrak ikusten egotea bezalakoa da niretzat kafea. Badakit ez didala egiten inongo mesederik, baina kontsumitzen jarraitzen dut. Eta dirudienez, ez naiz bakarra. Urteroko legez, ikasturte berriarekin, helburu berriak (%99ko probabilitatearekin beteko ez ditudanak) ezarri dizkiot nire buruari. Eta horietako bat da kafeina kontsumitzeari uko egitea.

Kafeina alkaloide bat da, eta alkaloideak (kokaina, morfina, heroina eta abar) landare jatorriko gai organiko, nitrogenodun eta alkalinoak (basikoak) dira. Kafeina, pestizida naturala izanik, landare tropikal askok sortzen dute. Harrapakarien nerbio sistemari eragiten dio, eta horiek landarea jateari uko egiten diote.

Kafeina purua orratz formako nahiz kolore eta usain gabeko hauts garratza da. 1819an isolatu zen kafetik, baina bere egitura ($\text{C}_8\text{H}_{10}\text{N}_4\text{O}_2$) ez zen deskribatu 1875 arte (Hermann Emil Fischer, Kimikako Nobel saria 1902an). Ondo dakizuen moduan, kafeina lortzeko iturri nagusiak kafea, tea eta kakaoa dira, eta lehen aldiz,

Etiopian, Txinan eta Hego Amerikan erein ziren, hurrenez hurren. Kafearen eraginaz Yemeneko artzainak ohartu ziren V. Mendean, kafeondoaren fruituak jaten zituzten ahuntzak bizkorragoak eta geldiezinagoak zirelako.

Kafeina munduan gehien kontsumitzen den substantzia psikoaktiboa da. Neurrizko kafeina kontsumoak alerta egoera, esna aldia eta energia sentipena igotzen dituela baieztatzen duten ebidentzia zientifikoak daude. Baina, zoritxarrez, gehiegizko kafeina kontsumoak –egunean 500 miligramo edo gehiagok– intoxikazioa eragin dezake, urduritasuna, insomnioa, takikardia eta nahaste gastrikoa azaleratuz. Gainera, 10 gramo kafeina hauts kontsumituz hil egin gaitezke. Adituek egunean 400 miligramo kafeina baino gutxiago kontsumitzea gomendatzen dute, baina balio hori oso aldakorra da pertsonaren arabera.

Kontuan hartuta kafe katilu bakoitzak, batez beste, 100 miligramo kafeina dituela, edari energetikoak 80 mg/250 ml, te beltzak 25 mg/100 ml, txokolate beltzak 68 mg/100g eta Coca-Colak 4 mg/330 ml, non aurkitzen da zure eguneroko kontsumoa? Nirea gomendatutako dosiaren azpitik egon arren, zeharo garbi daukat kafe tanta bakar batek ere ez didala onik egiten. Batzuetan, ez dago denbora hartu eta geure buruari entzutea baino gauza hoberik. Has gaitezen ba! ■■■

BOTEPRONTOAN



IGNACIO ARAKISTAIN

Topaguneak

Irudipena dut herri baten nortasunak beharrezkoak dituela topaguneak bere iraupena bermatu ahal izateko. Indibiduo bakoitza, bere pentsaera eta moldez gerturatuta, kolektibo baten parte sentitzen baita topagunean. Izarraitz magalean badakigu horretaz zerbait, heterogenoa den herri honek aurkitu ditu-eta azken hamarkadetan elkar sentitzeko gune eta uneak. Sanagustin kulturgunea, zeinak aurren 10 urte bete dituen, epizentroa da azpeitiarrontzat. Memoriak argazki ugari ditu bertan, eta gure mugetatik haratago, kultura sortzeko, bizitzeko eta dastatzeko modu baten ikur bihurtu zaigu, errezeleak errezele, guztion etxea dena.

Defendatu izan dut kulturaren botere eraldatzailea, urrun daudenen largabista izan daitekeela; elkar hobeto ikusteko, enfokatzeko tresna. Enkoadraketa zabaldu beharra dugu, begien ertz guztietara mugituz ninia, iritzi arrotzak gure objektibora gerturatuz. Etorikizuneko argazkiak ezin du lausotasunik eta islarik izan. Batzen gaituzten lekuak esploratzen jarraitu beharra dugu, beraz. Intentzio horrekin heltzen diot orriotan hausnarketak partekatzeke erronka berri honi. ■■■



TiEN21ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

UZTARRIA

IRUDIAK ETA HITZAK ELKARTZEN DITUEN

IRUDHITZEN

V. EDIZIOA



IRUDIMENA ETA SORMENA BISTARATZEKO LEHIAKETA
AZAROAREN 5ERA ARTE DUZU PARTE HARTZEKO AUKERA!

GAIA:

Eguneroko bizitza